

udaltop

UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK

#udaltop17

Batera Jauzi: euskararen erabilerarako baldintzak adosteko prozesu/praktika herritarra

ONINTZA OLAIZOLA ARISTI
(TAUPA)

IRATI AGORRIA CUEVAS
(TAUPA)

www.udaltop.eus



Egun, Taupa Euskaltzaleen Mugimendua den garaiko Topaguneak, hamarkada berrirako bere helburuak eta lan-ildo estrategikoak zehazteko, III. Kongresua antolatzea erabaki zuen 2022an.

Orduetik, aldaketa ugari gertatu dira helburu horiek bideratzeko. Erabileran jauzia emateko, oinarriak berrikusteko eta estrategia-lerro nagusiak finkatzeko, eraldaketa prozesu bat abiatu zen eta, barne-dinamika kohesionatzailea jarri zuen martxan federazioak. Premia horietatik abiatuta, abenduaren 14an, Euskaltzaleen Topagunea **Taupa Euskaltzaleen Mugimendu** izatera igaro zen. Euskara elkarteen federazio izatetik, Euskal Herri osoan herritarrak antolatzea igaro ginen, saretu, eta herritar orori bere neurriko ekarpena egiteko aukera eskainiz. Euskaingintzari ekarpena aniztasunetik egitea da aldaketa honen helburua, eta horrekin euskaratik urrunago daudenengana iritsi nahi da, mugimendua zabaltzeko eta hauspotzeko asmoz. Ildo beretik, eta herritarren inplikazioa lortzeko helburuarekin, **Batera Jauzi dinamika herritarra** abiatu zen. Proposamen honen bidez, jarraian sakonki azalduko den bezala, datorren hamarkadan euskararen erabilera handitzeko metodologia gizarteratzen da.

Gizarte-erlaketarako dinamika honek, euskararen erabileran goranzko jauzia emateko beharrezko baldintzak adosteko, askotariko jendartea elkarriketan jartzen du: euskaratik hurbil dauden zein urrunago dauden pertsonak, hain justu ere. Askotariko bizipen eta pentsamenduak dituzten zein euskara-maila desberdina duten herritarren arteko elkarrekintza da hau. Taupak, nazio mailan jarri zuen martxan lehen Batera Jauzi prozesua, eta ondoren, herri mailara egokitu. Batera Jauzi prozesua jarraian azaltzen ditugun oinarri teorikoak barne hartzen zituen dinamika bat egin nahietatik sustatu zuen Taupak.

- **Demokrazia sakontzea:** Prozesuak herritarren parte-hartze aktiboa eta erabakietan eragiteko gaitasuna bultzatzen du. Euskararen erabilerari buruzko baldintzak herritarrek adostuz, prozesuak demokraziaren oinarriak indartzen ditu, jendartearen ahots guztiak kontuan hartuz eta erabakiak legitimitate handiagoz jantziz.
- **Gizarte eta hizkuntza bizikidetzak:** Prozesuak gizartearen aniztasuna eta bizipenak aitortu eta elkarriketagai bilakatzen ditu. Helburua gizarteko kide guztiek eta haien iritziek beren lekua izatea eta euskarak gizarte kohesioa indartzeko balio izatea da, horretarako, euskararekiko distantzia sentitzen dutenenak erdigunera ekarriz. Modu horretan, euskararen erabilerari buruzko ikuspegi zabalago eta justuago bat eraikitzen laguntzen da.
- **(In)justizia epistemikoa:** Kontzeptu honek aitortzen du ezagutza eta esperientzia guztiak ez direla modu berean baloratzen; sarri, akademiko eta teorikoak diren ahots adituei, esperientzia eta ezagutza empirikoa jasotzen duten arituei baino zilegitasun handiagoa ematen zaielako. Batera Jauzi prozesuak, ahots gutxituen ekarpenak balioan jartzea bilatzen du.
- **Ikerketa-ekintza partehartzailea:** Metodologia honek ikerketa eta ekintza uztartzen ditu, herritarrak prozesuaren ikertzaile eta eragile bihurtuz. Euskararen erabilerari buruzko datuak eta iritzia herritarrekin batera aztertzen dira, eta hortik abiatuta, eraldaketarako ekintza zehatzak diseinatzeko beharrezko oinarriak adosten dira.
- **Elkarrizketa eta gizarte-komplexutasuna:** Gizartea sistema konplexu bat dela aitortzen da, non faktore askok eragiten duten euskararen erabileran. Elkarrizketa da konplexutasun horri aurre egiteko bide nagusia. Elkarrizketa eztabaidatik bereizten da helburuagatik eta jarreragatik. Eztabaidan, norbaitek arrazoi duela frogatzen da, norbere argudioak bestarenaren aurrean gailenduz. Elkarrizketan, ordea, elkar ulertzea, ikuspuntuak partekatzea eta baterako adostasunetara iristea da xedea. Gizarte-komplexutasunari aurre egiteko, elkarrizketa eraikitzailea eta enpatikoa funtsezkoa da, horrekin osagarritasun printzipioa praktikan jartzen delarik.

Oinarri teoriko horietatik abiatuta, aipatutako guztiari forma emateko Iñigo Retolaza erratzatzailearen lanak berebiziko garrantzia izan du, berak egin baitu Aldaketaren Teorian oinarrituz, dinamikari izaera

emateko lana. Aldaketa Teoria hainbat printzipio teoriko kontuan izanda sortzen da. Lehenik eta behin, sistemen pentsamendua dugu, zeinaren arabera euskararen erabilera ez den fenomeno isolatu bat, baizik eta faktore sozial, kultural, ekonomiko eta politikoeekin erlazionatutako sistema konplexu baten parte den. Hori dela eta, eraldaketa eraginkorra lortzeko, sistema osoa ulertu behar da, elementu desberdinen arteko eraginak eta loturak identifikatuz, eta esku-hartzeak sintometan zentratu beharrean eragin-puntu estrategikoetan jartzeko. Bigarrenik, parte-hartzearen garrantzia azpimarratzen da, eraldaketa iraunkorra lortzeko ezinbestekoa baita prozesuan eragile eta herritar ahalik eta gehien inplikatzeko. Parte-hartzeak ikuspegi eta esperientzia desberdinak biltzeko aukera ematen du, jabetza kolektiboa sustatuz eta emaitzen legitimitatea areagotuz, herritarrak prozesuaren parte sentitzen direnean inplikazio handiagoa erakusten baitute aldaketaren alde. Hirugarrenik, ikuspegi anitzen beharra dago, euskararen erabileraren inguruko erronkak eta aukerak ez baitira modu berean bizi eta interpretatzen gizarteko sektore guztietan. Ikuspegi anitzak kontuan hartzeak, osagarritasuna bermatuz, errealitatearen irudi osoago bat izateko aukera ematen du, lehentasunak hobeto identifikatzeko eta erantzun inklusiboagoak eta eraginkorragoak diseinatzeko, euskaratik hurbil dauden zein urrun dauden ahotsak entzutea funtsezkoa delarik. Azkenik, eraldaketarako bideak elkarrizketaren bidez eraikitzearen ideia dago, Aldaketaren Teoriak elkarrizketa hartzen baitu eraldaketarako tresna nagusitzat. Elkarrizketaren bidez, desberdintasunak gainditu, adostasunak bilatu eta helburu eta ekintza partekatuak definitzen dira, suposizioak azaleratzeko, sinesmenak zalantzan jartzeko eta eraldaketarako narrazio berriak eraikitzeo aukera emanez, eta bide horretatik sortzen diren soluzioak jasangarriagoak eta eraginkorragoak izateko joera dute.

Baina nola gauzatzen da, hain zuzen ere, eduki teoriko hori dinamika praktikoan? Nola aplikatzen dira printzipio horiek guztiak prozesua aurrera eramateko unean? Jarraian datozenak dira egitasmoa garatzeko unean emandako urrats metodologikoak:

1. Aldaketaren behararen definizioa eta helburuaren ezarpena: Zehaztu "Nahi Den Aldaketa NDA" (kasu honetan, euskararen erabileran goranzko jauzi bat ematea) eta ezarri helburu argi eta neurgarriak.
2. Egungo egoeraren azterketa: Ulertu zein den euskararen erabileraren egoera herrian, zeintzuk diren indarguneak, ahulguneak, aukerak eta mehatxuak.
3. Eragile nagusien identifikazioa eta parte-hartzearen diseinua: Zehaztu prozesuan parte hartu beharko duten herritarrak, eragileak eta kolektiboak, eta diseinatu haien parte-hartzerako mekanismoak (elkarrizketa taldeak, kontraste taldeak...).
4. Elkarrizketa eta datu bilketa: Antolatu elkarrizketa saioak eta bildu informazioa parte-hartzaileen bizipenetatik, iritzietatik eta proposamenetatik.
5. Baldintzen identifikazioa eta adostasuna: Elkarrizketetan ateratako informazioa aztertuz, identifikatu nahi den aldaketa gauzatzeko beharrezkoak diren baldintzen inguruan adostasuna bilatzen da parte hartzaileen artean, honela, behin betiko emaitza sortuz.
6. Etorkezun batean baldintza hauek gauzatu ahal izateko, lehentasunak adostu eta epe ertain eta luzera begirako edukia sailkatzen da, hurrengo urratsa baldintzek adierazitako eginbeharrak ekintzetara eramatea izango delarik.

Behin prozesuaren oinarri teorikoak eta urrats nagusiak zehaztuta, ezinbestekoa da prozesu hori aurrera eramateko beharrezkoak diren organo eta taldeak definitzea eta haien funtzioak argitzea.

- 1. Talde eragilea:** Prozesua diseinatu, gidatu eta koordinatzen duen taldea da. Talde hau, normalean, erakunde antolatzaileko (udaleko, euskara elkarteko...) eta prozesua dinamizatzen duen erakundeko (Taupa...) kidez osatuta dago. Talde eragilearen eginkizuna prozesuaren garapen osoa bermatzea eta zaintzea da: helburuak zehaztea, metodologia egokitzea, saioak antolatzea, deialdiak egitea, emaitzak sistematizatzea eta abar.

- 2. Elkarrizketa talde eragilea (ETE):** Herriko askotariko herritarrez osatutako taldea da. Talde honek euskararen erabileraren inguruko hausnarketa sakona egiten du, eta erabilera areagotzeko beharrezkoak diren baldintzak proposatzen ditu. Taldearen osaera anitza izaten da, adin, genero, jatorri, euskara-maila eta atxikimendua kontuan izanda ikuspegi desberdinak dituen talde zabala biltzeko.
- 3. Kontraste taldeak:** Herriko hainbat sektoretako edo kolektibotako herritarrez osatutako taldeak dira. Talde hauen helburua elkarrizketa talde eragileak proposatutako baldintzak kontrastatzea eta aberastea da, ikuspegi berriak eta errealitate desberdinak kontuan hartuz.
- 4. Lan saioak:** Talde desberdinen arteko topaketak dira. Saio horietan, elkarrizketak, talde dinamikak eta bestelako metodologia parte-hartzaileak erabiltzen dira, parte-hartzaileen artean hausnarketa eta adostasuna sustatzeko.
- 5. Emaitzen sistematizazioa eta itzulera:** Prozesu osoan zehar bildutako informazioa eta adostutako ondorioak txosten edo dokumentu batean biltzen dira. Ondoren, emaitzak herriari aurkezten zaizkio, parte-hartze prozesuaren garrantzia azpimarratuz eta etorkizuneko beharrak gizarteratuz.

Orain arte, Arrigorriagan eta Elgoibarren jarri da martxan egitasmoa, eta norabide berean, bestelako herri batzuetan aktibatuko da epe laburrean.

Arrigorriagan, "Batera Arrigorriagan" izenarekin garatu zen prozesua 2024ko martxotik azarora bitartean. Bertan, izaera askotariko herritarrek elkarrekin garatutako ibilbide parte hartzailea izan zen. Prozesuan bizikidetzaren demokratikotasun sakontzeko irizpideak aplikatu ziren, eta euskararen erabilera sustatzeko herri mailako bisio partekatua lantzea izan zen dinamikaren egitekoa. Horrekin batera, euskaltzaleen sarea zabaltzea eta aberastea izan ziren prozesu kolektibo honen albo helburuak. Aldaketaren Teoria izeneko metodologian oinarrituta, herritarrak izan ziren jendarte laborategi honen protagonista nagusiak. Prozesuaren gidaritza, berriz, Arrigorriagako Udalak eta Euskarri euskara elkarteak elkarlanean eraman zuten, diseinutik hasi eta aurkezpen ekitaldira arte. Taupa Euskaltzaleen Mugimenduak metodologiaz eta dinamizazioaz arduratu zen bide-laguna izan zen, eta prozesu guztiari eusteko elkarrizketa talde eragilearen (ETE) lana azpimarratu behar da. Elkarrizketa taldean eta kontraste taldeetan parte hartu zuten 75 lagunaren ekarpenak funtsezkoak izan ziren prozesuaren edukien lanketarako. Bederatzi hilabetetan egindako lan mardula Arrigorriagarren euskararekiko atxikimenduaren isla ere izan zen. Kontraste taldeetan gurasoak; gazteak; euskara ez dakitenak; eragile sozialak, kirol mundua, ostalariak eta merkatariak; eta Abusu auzoko herritarrak bildu ziren. Talde hauen ekarpenek ETEren lana aberastu eta herriko errealitatearen ikuspegi zabalagoa eskaini zuten.

Elgoibarren, "Batera Elgoibarren" izenarekin jarri da martxan prozesua 2025eko urtarriletik maiatzera bitartean. Bertan ere, askotariko herritarrek parte hartu dute ibilbide parte-hartzailean, helburu berarekin. Elgoibarreko esperientziak argi erakutsi du herritarrak direla gizarte laborategi honen protagonistak. Elgoibarreko Udalak eta herriko euskaltzaleen elkarteak, Elgoibarreko Izarrak, elkarlanean gidatu zuten prozesua, Taupa Euskaltzaleen Mugimenduaren metodologia eta dinamizazioarekin. Funtszkoak izan zen, halaber, talde motorraren lana, herritarren ekarpenekin batera. Hainbat hilabetetako lanak herritarren euskararekiko atxikimendua islatu zuen. Elgoibarren, honako arloetako herritarrak bildu ziren kontraste taldeetan: arlo sozio-ekonomikoa; gazteak, aisialdia eta kirola; kulturagintza; euskaraz ez dakitenak eta hezkuntza. Talde horien ekarpenek, ETEren lehenengo proposamenak osatzeaz gain, lehenetsunak eta erronkak identifikatzeko balio izan zuten.

Laburbilduz, Batera Jauzi prozesua herritarren parte-hartzean eta elkarrizketan oinarritutako metodologia eraginkorra dela frogatu da, euskararen erabileran jauzi kualitatibo eta kuantitatibo bat emateko. Hala ere, prozesuaren konplexutasuna eta aberastasuna direla eta, gaian sakontzeko,

aipaturako oinarri teorikoak eta praktikoak hobeto ezagutzeko, honako erreferentzia bibliografikoak kontsultatzera gonbidatzen zaitugu:

- **Topagunea. 2018. Batera jauzi dinamikaren emaitza.**
https://topagunea.eus/wp-content/uploads/2018/12/Batera-jauzi-dinamikaren-emaitza_txosten-osoan.pdf
- **"Batera Jauzi elkarrizketa prozesua. Euskararen erabilera bultzatzeko pentsamendu berri(tu) bat eraikitzen".** Bat Soziolinguistika Aldizkaria 128: 12-34.
- **YouTube 2024. Batera Jauzi**
<https://www.youtube.com/playlist?list=PL6WKIVkC76dQFwWQRJoMltsvc2bT3AArI>
- **YouTube. 2024. Batera Jauzi prozesua.**
<https://www.youtube.com/watch?v=4f0p7nwHe2w>

udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**

www.udaltop.eus